

# KULTUR JARDUEREN AGENDA



OTSAILA • MAIATZA 2023  
ARANGUREN IBARRA



## → MAGIA FAMILIARTEAN

### “SENTSAZIOAK” Hodei Magoa

Otsailak 11, larunbata (Gazt), eta 12, igandea (Eusk)

18:00

JENDE GUZTIARENDAKO JARDUERA (ADIN GOMENDATUA: 5 URTETIK GORA)

3 €

80 min



Hodei Magoak teknologia berriak aztertzeko erronkari heldu dio. Eszenaratze oso bisuala erabiltzeaz gain, inpaktu handiko saioak egiten ditu teknologiak gizartean duen eragina erakusteko. Ikuskizuna jende guztiarendako da, erritmoz beterikoa, umoretsua, proposamen berritzaileak dakartza, bai eta ezinezko ustekabeak ere.

## → ANTZERKIA

### “EL ALMA DE VALLE -INCLÁN” El Brujo

Otsailak 19, igandea

19:00

GAZTE ETA HELDUENDAKO JARDUERA

6 €

100 min



Rafael Álvarez El Brujo agertokietara itzuli da, bere ikuskizunik intimoena dakarrela, hots, El alma de Valle Inclán. Valle-Inclánen umorea Atlantikoa, urdina eta Druidikoa da, baita umore jasoa eta ezjakina ere, halako ezjakintasun liskarzailea dariola.

## → ANTZERKIA FAMILIARTEAN

### “NOA UY, UY, UY” Phanta Rey

Otsailak 26, igandea

Gaztelaniaz 12:30  
Euskaraz 18:00

JENDE GUZTIARENDAKO JARDUERA (ADIN GOMENDATUA: 2 URTETIK GORA)

3 €

45 min



Noa ia hiru urte ditu eta berezkoa, librea, ipurtarina, bihurria, jostalaria eta barregarria da. Bere aitona-amonak urrun eta oso lasai bizi dira. Egun apartak izanen dira denentzat. Noa haiekin egun batzuk pasatzera joatearen ondorioz, haien bizitza monotonoak irauli egingen dira. Aitona-amonek beste modu batean ikusiko dute mundua Noaren begien bitartez. Urakana dator. Sekulako abentura izanen da hirurentzat.

## → ZINE-FORUMA: EMAKUMEAREN EGUNA

### “PAGO JUSTO” moderatzailea por María Castejón

Martxoak 2, osteguna

18:30

2,5 €

113 min



1968an, Dagenham-eko Ford lantegiko ia 200 jostunek grebari ekin zioten gizonek kobratzen zuten soldata berdina aldarrikatzeko. Ritak gidaturik, haien ekinaldiaren bidez, azkenean Equal Pay Act legea onetsiko da.



## → ANTZERKIA

### “LA MALPAGÁ” Producciones Maestras

 **Martxoak 5, igandea**

 **19:00**

 **GAZTE ETA HELDUENDAKO JARDUERA**

 **6 €**

 **80 min**



Barietate ikuskizuna da, errebistaren molde peto-petoan egina, Espainiako iragan ilunena etorkizun hobeko baten itxaropenarekin nahasten duena. Kabaret zital honetan, eskutik helduta doaz umorea, kritika soziala, poesia eta zirrarra. Gizarte gisa aurreratu dugun guztia ekartzen digu gogora eta, ohartarazi, aurrerapen oro galdu ere egin dezakegula, erne ez bagabiltza. Sartu eta ikusi, eseri eta gozatu...

## → KAFE-ANTZERKIA

### EMAKUMEAREN EGUNAREN OSPAKIZUNA

#### “DÍGAME”, Trokolo Teatro

 **Martxoak 11, larunbata**

 **19:00**

 **GAZTE ETA HELDUENDAKO JARDUERA**

 **4 €**

OHARRA: SARRERAK LEIHATILAN SALGAJ, EKUDIRUTAN BAIZIK EZ



Calendula eta Muxutruka buru-belarri ari dira enplegua era aktiboan bilatzen. Bien esperientzien ondorioz, inozoki desegokiak diren gauzak ezagutuko dituzte. Zaurgarritasunean eta Clown jokoaren xamurtasunean oinarriturik, ikasiko dute ez dela batere erraza lan merkatuan “sartzea”, hau da, ez dela batere erraza emakume gorputz bat ekoizpen sisteman sartzen saiatzea.


Antolatzaileak: berdintasun Alorra eta Aldapa Emakume Kultur Elkarte

## → ANTZERKI MUSIKALA FAMILIARTEAN

### “TXIKI” Adriana Olmedo

 **Martxoak 12, igandea**

 **17:00 h (Euskaraz) eta 18:45 h (Gaztelaniaz)**

 **JENDE GUZTIARENDAKO JARDUERA (ADIN GOMENDATUA: 4 URTEK GORA)**

 **3 €**

 **60 min**



Konfiantzaren galeraz eta adiskidantzaren balioaz gogoeta egiten duen abentura bat da. Hain zuzen ere, horixe gertatu zaio Maya protagonistari, konfiantza galdu baitu bere buruan, eta adiskideek ez dute bera baloratzen. Maya eskolaz aldatzeko beldur da, eta etxeok ez diete jaramonik egiten haren kezkei.

## ARANGUREN IBARREKO ANTZERKI TAILERRA

### “El florido Mutilva” Ion Barbarinek zuzendua

Interpreteak: Carmen Almunia, M. José Cuenca, Rafael Estrada, Fernando García, Marian Oria, Susana Pérez, M. Jose Romasanta eta Javier Zalba

 **Martxoak 17, 18 eta 19**

 **19:00**

 **GAZTE ETA HELDUENDAKO JARDUERA**

 **2 €**

 **70 min**








Antzezlanak umorez kontatuko digu gerraondoko Espainian ezarritako hezkuntza-eredua. Hezkuntza hura erabat zegoen manipulatu eta, erlijioaren ondorioz, jende guztiak betiereko zigorraren beldurra zuen bere bizitzan txertatua. Pertsonaiek oroitaraziko dizkigute oraindik ere gure iruditerian dirauten garaiak, oraindik ere jokaldi makurrak eragiten dizkigutenak.

## ➔ ANTZERKIA FAMILIARTEAN

### “EL FANTASMA MENTIROSO” *El Cau de L'unicorn*

Haurrendako antzerki beltza

-  **Martxoak 25,**  
larunbata
-  18:00
-  **JENDE**  
**GUZTIARENDAKO**  
**JARDUERA**  
(ADIN GOMEN-  
DATUA:  
4 URTETIK GORA)
-  **3 €**
-  **60 min**



Hiru alegia hauetan gauzak ez dira beti diruditena. Batetik, Narcisa txerrikumearen istorioa, bere burua miragarritzat jotzen duena. Bestetik, Paco herabetiaren istorioa, maitemindua dagoena. Eta hirugarrenik, Ratulín familia ipurtarinaren istorioa (sagutxo familia bat), ustekabez beteriko bidaiari helduko diona. Txotxongilo erraldoiz eta aktorez osaturiko ikuskizuna da formatu handian, argi beltzean.

## ➔ EMANALDI BEREZIA: ZINEMA+DANTZA

### “BASOTIK ITSASORA” *Dantzaz*

Sendaberri zirkuitua. Paisaia eszeniko berriak. Errefuxiatuei buruzko gogoeta da, historiari eta orainari begira

-  **Martxoak 26,**  
igandea
-  19:00
-  **GAZTE ETA**  
**HELDUENDAKO**  
**JARDUERA**
-  **3 €**
-  **70 min**



Sorkuntza koreografikoa eta zinema modu harrigarrian uztartu dituen ikuskizun berezia da. Hasteko, dokumental bat, gogoeta egiteko Gurseko kontzentrazio-esparruan gertatutakoaz eta egun Mediterraneoan gertatzen ari denaz, Ondotik, publikoa mugitzera dago gonbidatua, koreografia zuzenean ikusteko, gaien bertan oinarritua, baina poesia eta metafora taldeak berak ondutako musikaren eta koreografiaren gainea.

**Sendaberri**  
Nuevos paisajes escénicos  
Paisaia eszeniko berriak

## ➔ ARANGUREN IBARREKO ANTZERKI TAILERRA

### “FUERA DE JUEGO”. *Leyre Ruizek eta Iratxe García* zuzendua

Interpreteak: Begoña Agundez, Rosa Arnedillo, Silvia Beroiz, Tere Garatea, Kodobike Iribarren, María Iribarren, Marisa Serrano eta Maribi Vera

-  **Martxoak 31,**  
**apirilak 1**  
**eta 2**
-  19:00
-  **GAZTE ETA**  
**HELDUENDAKO**  
**JARDUERA**
-  **2 €**
-  **70 min**



Tragikomedia honek emakumearen eginkizunaz eta emakumeen kirolaz egiten du gogoeta, oraindik ere arlo askotan matxismo izugarria darion gizarte batean. Beren zaletasunetik bizi nahi duten neska batzuen ibidiak, ametsak, zalantzak eta beldurrak azaleratuko dira aldagelan.

## ➔ MUSIKA FAMILIARTEAN

### “GOT RHYTHM”- *Txus Eguilaz*

-  **Apirilak 12,**  
**asteazkena**
-  12:00
-  **JENDE GUZTIA-**  
**RENDAKO JAR-**  
**DUERA** (ADIN  
GOMENDATUA: 4  
URTEKIK GORA)
-  **3 €**
-  **50 min**



Perkusioa, klakea, beatbox-a eta beste uztartu dituen ikuskizun musikal honetan, publikoa da protagonista nagusia. Erritmo-ablezia ezberdinak dituzten artista berrien bila ari da Got Rhythm saio entzutetsua. Castingean ikusiko da era guztietako hautagaiak eta haien ablezia mota guztiak txiki gelditzen direla publikoaren aurrean, publikoa izanen baita lehiaketa irabazteko hautagai nagusia.



## → ANTZERKIA

### “PERSÉFONE” Iluna Producciones

Sendaberri zirkuitua. Paisaia eszeniko berriak

📅 **Apirilak 16, igandea**

🕒 **19:00**

👥 **GAZTE ETA HELDUENDAKO JARDUERA**

🎫 **6 €**

🕒 **70 min**



PERSEFONEK “heriotza daramana” esan nahi du greko zaharrean. Gure Persefone Silvia da. Emakumeak aitaren abusuak pairatu ditu etengabe, bai eta amaren isiltasuna ere. Silvia, itxuraz, ongi eta zoriontsu bizi da, familia ingurune egonkorrean, senarrarekin eta alabarekin. Behin batean, ordea, gertakari batek haren bitzta hankaz goratuko du, berriz ere azpimundura eramanda.

Aurretiazko tailerra: “Persefoneren hariak” (info +: [www.arangure.es/cultura](http://www.arangure.es/cultura))

**Sendaberri**  
Nuevos paisajes escénicos  
Paisaia eszeniko berriak

## → ANTZERKIA

### “PASSPORT” Yllana

📅 **Apirilak 23, igandea**

🕒 **18:00 eta 20:15**

👥 **GAZTE ETA HELDUENDAKO JARDUERA**

🎫 **6 €**



Passport 4 komikoren istorioa da. Komedistan izeneko herrialdean ari dira biran. Atzerrian lan egitea ez da gozoa izaten: aduanako gorabeherak herrialdean sartzeko, hizkuntzarekiko gatazka jabetxe batean, hotel txar-txar batean ostatu hartzea, emanaldi baten inguruko arazoak eta beste gertatzen baitira. Antzezlanaren bidez omenaldia egin nahi izan zaio irria mundu zabalera eraman nahian mugak gurutzatzen dituzten artisten bizitzari. Hitzik gabeko komikotasun zorabiagarria da jende guztiarendako!!

## → EUSKARAREN ASTEA

### “GOAZEN9.0” Glu Glu & Pausoka

📅 **Maiatzak 4, osteguna**

🕒 **18:00**

👥 **JENDE GUZTIARENDAKO JARDUERA (ADIN GOMENDATUA: 7 URTEK GORA)**

🎫 **3 €**

🕒 **70 min**



musika! Musika eta dantza ere izanen dira aurten ardatz.

*OHARRA: Ikuskizunak eragindako ikusmin handia dela eta, eta ahalik eta gazte gehienek huraxe gozatzeko aukera izan dezaten, eskatzen dizuegu ahalik eta heldu gutxien joatea gazteekin, beharrezkoak direnak baizik ez. Eskerrik asko zuen laguntzagatik.*

Heldu da Go! Jazen 9.0ren denboraldi berria. Hiru ikasle berri iritsi dira Basakabira, Saioa, Gontzal eta Alain, eta haietako batek sekretu bat dauka gordea. Nola moldatuko dira ikasle berriak beteteranoekin? Maitasun istorioak, gezurrak, abenturak eta

## → EUSKARAREN ASTEA

### “URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI” Pirritx, Porrotx eta Marimotots

📅 **Maiatzak 5, ostirala**

🕒 **18:00**

👥 **ARANGUREN IBARREKO KIROLDEGIKO PABILOIA**

🎫 **3 €**

🕒 **70 min**



Bizitzan zehar egin ditugun lagun asko etorriko zaizkigu gure 35. urtemugaren ospakizunean parte hartzeko. Ez da kanturik eta dantzarik faltako, eta denok gogotik parte hartuko dugu. Urteak betetzea garrantzitsua bada, are gehiago abenturak bizitzea!...

## ERAKUSKETAK

### BISITA ORDUAK:

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

**SARRERA LIBREA**

### INAUTEA

Ibilbide ederra da herri inauteri nagusietan zehar, hots, Lantz, Altsasu, Ituren-Zubieta, Uztaritze eta, nola ez, Mutiloa.



**Otsailaren 6tik, astelehena, otsailaren 19ra, igandea**

### "EMAKUMEAK KIROLARI" - Iñaki Vergara

Argazki erakusketak emakume kirolarien egoera erakutsi nahi du, bai eta hartan dagoen desberdintasuna ere, gizarteko beste arlo batzuetan bezala. Kiroletan ari diren emakumeek esaten dituzten gauza asko erakusten dizkigu, baina baita lortzeko zorian dauden gauza horiek ere.



**Otsailaren 21etik, asteartea, martxoaren 12ra, igandea**

Organiza: Berdintasun Alorra

### ESKULTURA - Carlos Purroy

"Eskultoreak bere eskuekin hitz egiteaz gain, ezinezko bat bilatu behar du lana gauzatzeko. Berak bakarrik hitz egiten ez duen eskultoreak ezin izanen du inoiz komunikatu, ez bere buruarekin, ez besteekin".



**Martxoaren 15etik, asteazkena, apirilaren 4ra, asteartea**

## LA BANDA TEATRO CIRCO TALDEA

### PROIEKTUA "ConectArte"

#### IKERKETA TAILERRA

Lantegiak sorkuntza prozesu bat partekatu nahi du artisten eta publiko orokorraren artean. Mugimendu berezi bat aurkitu parte-hartzaile bakoitzarengan, hainbat tresna baliatuta, hala nola gorputz adierazpena, dantza garaikidea eta antzerkia. Zuzendaria: Lucio Baglivo.

**Maiatzak 12 eta 13**

Tailerrean izena ematea daokoa izanen da maiatzaren 4an eta 5ean, aurrez aurreko leihatila ordutegian edo telefonoz



**Iraupena:** 8 orduko prestakuntza.

**Zuzendaria:** Lucio Baglivo.

**Iraupena:** 8 orduko prestakuntza.

**Noiz:** Hilak 12, ostirala, arratsaldean, 19:00etatik 21:00etara. Hilak 13, larunbata.

Goizean, 10etatik 13etara eta, arratsaldean, 16etatik 19etara.

*Muestra abierta al público.*

**Norentzat:** Pjende orokorrarentzat. Ez da esperientzia izan beharrik aste eszenikoetan

Tailerra gehienez 15 lagunendako izanen da. Taldeak jendea aukeratuko du, sorkuntzaren beharretara hobekien doitzen diren profilen arabera.

**Emaila:** Lucio Baglivo, akrobata, dantzaria, aktorea eta zuzendaria.

## LA BANDA TEATRO CIRCO TALDEA

### PROIEKTUA "ConectArte"

**Maiatzak 13, larunbata**

**20:00**

**JENDE GUZTIA-RENDAKO JARDUERA**

**SARRERA DOAN, AURREZ GONBIDAPE-NA HARTUTA**



**LA BANDA**  
"TEATRO CIRCO"

Taldeak egoitza artistiko bat eginen du asteen zehar "Yügen" ikuskizun berria prestatzeko.

**Bizi izandakoa berreraikitzen:** Maiatzaren 13an, larunbatarekin, artisten eta publiko orokorraren artean partekatutako proiektu honetan egin den lanaren erakustaldi bat eginen da. Bukatzean, solasaldia eginen da erakustaldia ikustera joaten den publikoarekin.



## → PAZKO ASTEKO SORMEN TXOKOA

*Apirilaren 11tik 14ra*



Eguberrietako sormen txokoak izaniko arrakasta ikusirik, pazko astean ere izanen duzue hona etortzeko aukera (zuen haurrak oporraldietan egonen baitira), margotzeko, sortzeko, irakurtzeko edota, besterik gabe, erakusketa gelako gure txokoan lasaitzeko, kultur etxearen ohiko ordutegian



### *IpuinKantaria: Musas y Fusas*

Otsailak 24, ostirala, 17etan euskaraz eta 18:30ean gaztelaniaz.  
Apirilak 21, ostirala, 17etan gaztelaniaz eta 18:30ean euskaraz.



### *Ipuin-kontalariak Ingelesez*

Otsailak 10, ostirala, 18:00etan  
Martxoak 10, ostirala, 18:00etan  
Apirilak 14, ostirala, 18:00etan

### *Ipuin-kontalaria, berezia, emakumeak eta zientzia*

Otsaila 8, asteazkena, 18:00etan (gaztelaniaz)

### *Ipuin-kontalaria, berezia, Emakumearen Egunaren karira*

Martxoak 1, asteazkena, 18:00etan (gaztelaniaz)

## → ZAHARBERRITZE ETA PINTURA TAILERRAK

**BIGARREN LAUHILEKOAN ESKURA DAUDEN LEKUAK**  
(ERROLDATUEK LEHENTASUNA DUTE)

IZEN-EMATEA OTSAILAK 3 ETA 4  
(Lekuak zozketaz banatuko dira)  
Telefonoa 948 29 14 89, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara



### ZAHARBERRITZEA (45 ordu)

Erroldatuak: 90 €  
Ez erroldatuak: 180 €

### ORDUTEGIA

1. Taldea: asteazkena, 9:30-13:00.  
4. Taldea: ostirala, 16:30 - 20:00.

### LAUHILEKOAREN HASIERA

Otsailak 8, asteazkena.  
Otsailak 10, ostirala.

### EMAILEA

Gabriela Barrio.

### KUOTAREN HOBARIAK

%50eko deskontua, aurreko urteetan edo 2023an 65 urte edo gehiago bete eta Ibarrean erroldatuta dauden pertsonentzat, betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriak ez badu gaintzen familia-unitateko kide bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldata. Hobari-eskaera 2021. urteko errenta-aitorpenaren kopia batekin egin beharko da

### PINTURA HELDUENTZAT Pintura (60 ordu)

Erroldatuak: 120 €  
Ez erroldatuak: 240€

### ORDUTEGIA

1. Taldea: astearte eta ostegunetan, 10:00 - 12:00.  
2. Taldea: astearte eta ostegunetan, 16:00 - 18:00.

### EMAILEA

Isabel Erro.

### LAUHILEKOAREN HASIERA

Otsailak 9.

# AGENDA

KULTUR JARDUERAK

## FAMILIARTEAN

OTSAILAK 11 (GAZT) eta 12 (EUSK) 18:00  
"SENTSAZIOAK" (MAGIA)

OTSAILAK 26 (12:30 GAZT eta 18:00 EUSK)  
"NOA, UY, UY, UY" (ANTZERKIA)

MARTXOAK 12 (17:00 EUSK- 18:15 GAZT)  
"TXIKI" (ANTZERKI MUSIKALA)

MARTXOAK 25 (GAZT)  
"EL FANTASMA MENTIROSO" (ANTZERKIA)

APIRILAK 12 (GAZT)  
"GOT RHYTHM" (MUSIKA)

## EUSKARAREN ASTEA

MAIATZAK 4 18:00 (EUSK)  
"GOAZEN 9.0"

MAIATZAK 5 18:00 (EUSK)  
"URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI" (PAILASOAK)

## IPUINKANTARIAK MUSAS Y FUSAS

OTSAILAK 24 ETA APIRILAK 21

## IPUIN-KONTALARIA

INGELESEZ OTSAILAK 10, MARTXOAK 10,  
APIRILAK 14

TEMATIKOAK OTSAILAK 8, MARTXOAK 1

## GAZTEAK ETA HELDUAK

OTSAILAK 19 19:00  
ANTZERKIA "EL ALMA DE VALLE INCLÁN"

MARTXOAK 3, 18:30  
ZINE-FORUMA "PAGO JUSTO"

MARTXOAK 5, 19:00  
ANTZERKIA "LA MALPAGÁ"

MARTXOAK 11, 19:00  
KAFE-ANTZERKIA "DÍGAME"

MARTXOAK 17 - 19, 19:00  
ANTZERKI TAILERRA "EL FLORIDO MUTILVA"

MARTXOAK 26, 19:00  
ZINEMA+DANTZA "BASOTIK ITSASORA"

MARTXOAK 31 - APIRILAK 2, 19:00  
ANTZERKI TAILERRA "FUERA DE JUEGO"

APIRILAK 16, 19:00  
ANTZERKIA "PERSÉFONE"

APIRILAK 23, 19:00  
ANTZERKIA "PASSPORT"

MAIATZAK 12 eta 13 "CONECTARTE  
PROIEKTUA"

LA BANDA TEATRO CIRCO TALDEA



**Sarrera zenbakidunen salmenta:** Edukiera osasun eta prebentzio arloko agintariak ezarritako hartara mugatuko da. Auditorioan sartzen den pertsona bakoitzak toki bat hartuko du; umetxoek ere bai. Hau da, umetxoak ere zenbatzen dira edukiera kontrolatzeko, indarrean den segurtasun araudiarekin bat. Gainera, ezin izanen da edukiera hori gaitzitu. 2/1989 Foru legea\*.

### SARRERAK SALGAI: EKITALDI AURREKO A STELEHENETIK

- > Astelehenetik asteazkenera, salmenta Aranguren Ibarrean erroldatutako jendearentzat bakarrik, baldin eta sarreren sisteman alta hartu badute\*.
- > Ostegunetik aurrera, salmenta jende guztiarentzat.

\*Derrigorrezkoa da salmenta sisteman alta ematea erroldatutako persona bezala. Deitu 948 29 14 89 telefonora.



### LEIHATILAN:

- > Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.
- > Ekitaldiaren egunean: saioa hasi baino 30 minutu lehenago



### GEHIENEZKO SARRERA KOPURUA

- > Gehienez, 6 sarrera buruko familiendako ikuskizunetan.
- > Gehienez, 4 sarrera buruko gazte eta helduendako ikuskizunetan.

\*Familia ugariak, gehienez familia-unitateko pertsona kopurua, leihatilan bakarrik.



+INFO: 948 29 14 89

Jarrai iezaguzu Facebook  
[www.facebook.com/casadeculturaarangurenkulturetxea](http://www.facebook.com/casadeculturaarangurenkulturetxea)